



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

## 2016eko MAIATZAREN 17EKO BILKURAKO AKTA

Bilkura: Ohikoa

Eguna: 2016/05/17

*Ordua: 19.00etan*

*Deialdia: Lehenengoa*

Bilduak:

Olatz Iriarte Argaya. Alkatea

Ane Garmendia Gorostidi. Zinegotzia

Jokin Garmendia Etxeberria. Zinegotzia

Luis Lopez Garcia Uceda. Zinegotzia

Mikel Telleria Irastorza. Zinegotzia

Idazkaria: Nekane Lopetegi

### GAI ZERRENDA

- 1- 2016-04-19ko Bilkurako akta onartzea hala balegokio.
- 2- Landa bideentzako laguntzen deialdiaren barruan, burutu behar den proiektuari onarpena ematea (ikusitako bideak duten egoera azaldu)
- 3- Diru laguntzen araudia aztertu, eta Baliarraingo udalak ematen dituen laguntzak onartzea, hala balegokio.
- 4- Tokiko Agenda 21aren diru laguntzak agertu eta dagokiona erabaki.
- 5- Atarikideei aldizkaria jasotzeko gunea udaletxean jartzea onartzea.
- 6- Hileko ordainketak.
- 7- Galde erreguak.



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **1.-2016-04-19KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA HALA BALEGOKIO.**

Alkateak bilerari hasera eman ondoren, 2016-04-19ko Bilkurako aktaren izenburuak irakurri eta komentatu dira. Hainbat zuzenketa egin ostean onartutzat eman da.

## **2.-LANDA BIDEENTZAKO LAGUNTZEN DEIALDIAREN BARRUAN, BURUTU BEHAR DEN PROIEKTUARI ONARPENA EMATEA (IKUSITAKO BIDEAK DUTEN EGOERA AZALDU)**

Landa bideen inguruan deialdi bat argitara eman da Aldizkari Ofizialean , eta horren inguruan honako eskaera aurkeztea onartu da :

## **ERMENTA ETXEBERRI ETA AZPISALETXEKO HERRI BIDEAREN KONPONTZEA, EGOKITZEA ETA HOBETZEA**

SUSTATZAILEA: BALIARRAINGO UDALA.

ARKITEKTOA: MAIDER ROMO ARIZMENDI

DOKUMENTUEN AURKIBIDEA:

- A. DOKUMENTUA: MEMORIA.
- B. DOKUMENTUA: PLANOA.
- C. DOKUMENTUA: ARGAZKIAK.



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

## A. DOKUMENTUA

## MEMORIA

### MEMORIAREN AURKIBIDEA:

1. AURREKARIAK:
  - 1.1.- DATU OROKORRAK.
  - 1.2.- SARRERA.
2. BALORAZIO IRIZPIDEAK
3. EGIN NAHI DIREN LANEN DESKRIBAPENA.
4. AURREKONTUA.
5. OBRA-LANAK BURUTZEKO EPEA.

**1**

## AURREKARIAK

### DATU OROKORRAK:

<b>Proiektua:</b>	ERMENTA ETXEBERRI ETA AZPISALETXEKO HERRI BIDEAREN KONPONTZEA, EGOKITZEA ETA HOBETZEA
<b>Kokapena:</b>	BALIARRAIN
<b>Jabetza:</b>	BALIARRAINGO UDALA.
<b>Arkitektoa:</b>	MAIDER ROMO ARIZMENDI.

### SARRERA:

Baliarraingo landa eremuan, beste auzo askoren artean, Azpisaletxe eta Ermenta Etxeberri auzora iristen den herri bidea dago. Herri bide honen hasera, erantsitako planoan ikusi daitekeen bezala, Bidearte baserriaren ondoan dagoen bidegurutzetik hasten da eta sare



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

nagusia da. Azpisaletxe eta Ermenta Etxeberri baserrietaraino iristen da.

Landa bide honen egungo ezaugarriak direla eta, nekazaritza ustiategietara doan landa bide honen konpontzea, egokitzea eta hobetzea planteatzen da.

## 2

## BALORAZIO IRIZPIDEAK

2016ko Maiatzak 9an argitaratutako Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa bideentzako laguntzen oinarri arautzaileak eta 2016ko deialdiaren arabera, aurkeztutako eskaerak baloratzeko hainbat irizpide hartuko dira kontutan. Irizpide hauek kontutan hartuta, herri bide honen ezaugarriak zein diren azalduko da jarraian.

### INTERESA:

Biztanleria.- Aipatu bide honetan, maiztasun handiz erabiltzen duten herritarrak bertan bizi direnak dira:

-Azpisaletxe baserrian bi bizitza daude, eta bertan bost herritar bizi dira. Ermenta etxeberrri baserria hutsik dago. Bertan bizi direnei, ibilgailuz iristeko bidea bermatu behar zaie.

-Eta nekazaritza lan jardunean bidearen erabiltzaileak dira :

- Azpisaletxeko baserriaren jabeak.
- Bidearte baserriko ustiatzailea.
- Legorretako Bartzelona baserriko jabea.

Beste erabiltzaileak.- Aipatutako herri bidea maiztasun handiz erabiltzen dutenak, nahiz bertan ez bizi, hauek dira :

-Irabi baserrikoek zelaietara iristeko.



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

Honetaz gain bide honen erabilera herriko beste hainbat nekazariak ere egiten dute, zelaietako belarrak jasotzeko, purina banatzeko eta basoen ustiakuntza eta berauen garraiorako.

Bide honek hainbat nekazaritza ustiategiatarako sarbidea ematen du, eta beraz, interes orokorreko landa bidea dela kontsideratzen da; ganadua garraiatzeko, purinak banatzeko e.a.

### **BIDEAREN EGOERA:**

Diru laguntzen xedea, deialdiaren 1. atalean jasotzen da; landa ingurunean bizi direnen kalitatea hobetzea eta lehenengo sektorearen garapena sustatzea, hainbat zerbitzu eskura ditzaten, irisgarritasuna eta oro har, garraioa hobetuz eta nekazaritza azalerak hobeto ustiatzeko aukera eskainiaz.

Bide honetan bermatu beharreko eskubideak dira :

-Ibilgailuak baserri guztietara iristeko modua izatea, elurra eta izotza dagoenean ere bai.

-Oinez iristea ere bermatzea

-Zerbitzuak egunero iristea: Okina, ganaduaren pentsua, ganadua hiltegiara eramateko zerbitzua, sendagilea eta erizaina, ambulanzia, basoa ateratzeko garraioa e.a.

Bidearen egoera, erantsitako argazkietan ikus daiteke eta kalte handiagoak gerta ez daitezen, eta esandako xedeak bermatuak izan daitezen, derrigorrezko da dagokiona burutzea.

Baliarraingo Udalaren iritzian, diru laguntzaren xede den bide honen egoera oso txarra dela kontsideratzen da.

### **BIDEAK SARBIDE EMATEN DION USTIATEGIETAKO BATEN LAN BOLUMENA:**

Ekonomia Sustapeneko, Landa ingurunekeo eta Lurralde Oreka Departamentuak datu hau



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

osatuko du, Gipuzkoako Nekazaritzako Ustiatgien Erregistroan jasotako informazioarekin.

Bide honek ondorengo baserri hauei eskaintzen die zerbitzua:

- Azpisaletxe baserria . Baliarrain.
- Bidearte baserria .Baliarrain.
- Irabi baserria.Baliarrain.
- Bartzelona baserria . Legorreta.
- eta herriko beste hainbat baso ustiakuntza.

### **BIDEAREN HASIERATIK UDALERA DAGOEN DISTANTZIA:**

Udala hirigunean kokatuta dago. Hirigunetik hasi eta herri bide honen bidegurutzea arte, Foru Aldundiko errepidea dago. Herri-bide honen hasieratik udalera 600 metro inguruko distantzia dago. Bidearte baserriaren ondoan dagoen bidegurutzetik herri bidea hasten da eta 1960 metro lineal inguru daude.

Guztira, bidegurutzetik kontatuta 1960 metro lineal inguru daude, eta distantzia hirigunetik kontatuta 2560 metro lineal daude.

### **BIDEA KOKATUTA DAGOEN LANDAGUNEAREN ZONIFIKAZIOA**

Euskadiko Autonomia Erkidegoaren arabera Baliarraingo Udalerri osoa G2 landa gunean kokatzen da, eta ondorioz, landa bide hau ere G2 eremuan dago kokatua.

Azpisaletxe eta Ermenta Etxeberri auzora iristen den herri bidearen egoera txarra konpondu,



bidea egokitu eta hobetzeko bidea mendirantz zabaltzea planteatzen da. Bide honek egonkortasun arazo handiak ditu, eta askotan egin behar izan dira konponketak bidearen azpiko aldearen oinarri desegokia dela eta. Ondorioz, bidea mendirantz alderatzea planteatzen da, horretarako harkaitza hondeatuz eta oinarri oneko bidea lortuz. Bideari zabalera egokia eman ondoren, bidearen ertzean areka eraikiko da, mendiak ekarriko dituen urak biltzeko eta bideratzeko. Azkenik, lortutako trazadura berrian hormigoi armatuzko zoladura eraikiko zaio bideari.

#### 4

#### AURREKONTUA

---

#### NEURKETA ETA KOPURUAK

---

-01.- Bidea eta mendiaren ezpondaren artean dagoen tartean zaborra, sastraka eta belarrak kentzea.

220 ml x 1,50 €/ml.....360,00 €

-02.- Bidea zabaltzeko mendiaren ezponda hondeatu eta erregularizatzea, 3 metrotako altueran eta metro bateko zabalera, horretarako harkaitza puskatzeko mailua erabiliz. 220ml x 3ml x 1 x 54,20 €/m3.....35.772,00 €

-03.- Bidearen ertzean areka eraiki ahal izateko, bidea eta mendiaren ezpondaren artean dagoen lurra eta harkaitza hondeatu eta kentzea.

100 ml x 0,6 ml x 24 €/m2.....1.440,00 €

-04.- Bide ertzean 50 cm-tako zabalera eta 20 cm-tako fondoa duen hormigoizko areka eraikitzea, bideak eta mendiak ekarritako urak era egokian bildu ahal izateko.

220 ml x 31,00 €/ml.....6.820,00 €

-05.-Urak bidearen azpitik 300 mm-tako PVC-zko hodi bidez pasa ahal izateko metro bateko sakonerako zanga egitea, hodia jartzea, mugitu ez dadin inguruan hormigoia botatzea, gainetik hartxintxarra edo todo-unoa bota eta gainetik betetzea.



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

6 ml x 100,00 €/ml.....600,00 €

-06.- Bidean dagoen todo uno zoladura, materialaren ekarpen bidez, sestrak egokituz eta materiala ondoren trinkotuz.

220 m2 x 6 €/m2.....1.320,00 €

-07.- 15 cm-tako hormigoi armatuzko bidearen hormigonatzea.

220 ml x 3ml x 21 €/m2.....13.860,00 €

---

BATURA.....60.172,00 € B.E.Z

%21.....12.636,12 €

**GUZTIRA OBRA-LANAK BURUTZEA.....72.808,12 €**

BALIARRAIN, 2016KO MAIATZA.

MAIDER ROMO ARIZMENDI, arkitektoa.

**4**

**OBRAK BURUTZEKO EPEA**

LANAK EGITEKO EPEAK:

Aurreikusitako lanak burutzeko, obrak hasten direnetik 2 hilabetetako epea beharko dela kontsideratzen da. Beti ere, jarduketak burututa egongo lirateke 2016ko azaroaren 20a baino lehen.





BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

#### GASTUAK EGITEKO EPEAK:

Obrak egiteari buruzko gastua jadanik obrak eginda daudenean egingo da. Ordainketa aldi batean eta obrak amaitzean egitea aurreikusten da, eta beti ere ordainketa gastua eginda egongo litzateke 2016ko azaroaren 20a baino lehen.

BALIARRAIN, 2016KO MAIATZA.

MAIDER ROMO ARIZMENDI, arkitektoa.



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

## B. DOKUMENTUA

## PLANOA





BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

## C. DOKUMENTUA

## ARGAZKIAK





BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)





### **3.-DIRU LAGUNTZEN ARAUDIA AZTERTU, ETA BALIARRAINGO UDALAK EMATEN DITUEN LAGUNTZAK ONARTZEA, HALA BALEGOKIO.**

Aurreko bilkuran , Alkateak , udalak kultura eta hezkuntza alorrean ematen dituen laguntzen araudia gainbegiratzea proposatu zuen . Gai honen harira , idazkariak jakinarazten du , Aurrekontuen legediak , urteko aurrekontuarekin batera , diru laguntzen araudia egitea behartzen duela . Eta Baliarraingo kasuan , era honetara sailkatu daitezkeela :

.-Hitzarmen bidez ematen direnak . Ataria , Guraso elkarteak , Peñascal e.a.

.-Deialdi ireki baten bidez ematen direnak : ikastaroak , kirol ekintzak e.a.

Alkateak dio , lehen dagoen arautegia berraztertu behar dela baina horren lana kultur komisioan hasera eman beharko litzaiokeela , bere iritzian eta hurrengo kultura batzordean hasiko direla .

### **4.-TOKIKO AGENDA 21AREN DIRU LAGUNTZAK AGERTU ETA DAGOKIONA ERABAKI.**

Idazkariak udal korporazioari jakinarazten dio Tokiko Agenda 21aren berrikuntza lanak eta ingurunearen inguruan hainbat proiektu gauzatzeko deialdia argitara emana dagoela .

Proiektuen artean , AGENDA 21 dokumentua eguneratzeko lana ere badagoela , baina berriro aurretik dokumentuaren edukia ezagutzeko beharrezkoa dela .

Beraz , Agenda 21 dokumentua aztertu eta ezagutzeko geratzen da eta hurrengo urterako laguntza eskaera bideratzeko .

### **5.-ATARIKIDEEI ALDIZKARIA JASOTZEKO GUNEA UDALETXEAN JARTZEA ONARTZEA.**

Alkateak jakitera ematen du Tolosaldeko Atari komunikabidearen ordezkariak , luzatu dion idazkian ondoren adierazten diren asmoak agertu dizkiola :

.-Atarikide gehiago lortzea dela helburu eta kanpaina bat egin nahi duenez , udalak herritarren artean eskaintzarekin deia banatzea .



.-Udalak adierazitako puntu batetan , kide berriak jasotzeko aldizkaria jasotzeko buzoi bat jartzea leku publiko batetan .

Udalkideek ERABAKI DUTE :

- 1.-Atariako kide berriak lortzeko deia herrian banatzea .
- 2.-eta leku ireki publiko batetan buzoiak jartzeko adostasuna agertzea .

## **6.-HILEKO ORDAINKETAK.**

Jarraian aipatzen diren ordainketak onartu dira :

TITULARRA	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
MUGITEGI	PARKEKO ATEAK	1.570,58 €
GAO	IRAGARKIA	64,02 €
TOLOMENDI	IKT	152,50 €
ANDUITZ	ZARTAGI TABERNAN TUBERI HAUSTURA KONPONTZEA 2015	796,57 €
MIKEL MUÑAGORRI	INGLES IKASTAROA	75,00 €
JAKOBA ERREKONDO	HITZALDIA	170,00 €
ANE GARMENDIA	3. ADINEKOENTZAKO MATERIALA	58,35 €
KARMELE AURKIA	MARTZELINORI OPARIA HERRI KIROLETAKO EGURRA	50,00 €
PILI ARSUAGA	MARTZELINORI OPARIA TXAPELA ETA GRABAZIOA	80,00 €
KARMELE AURKIA	MARTZELINORI OPARIA ZILARREZKO GILTZATAKOA	86,00 €
	GUZTIRA	3.103,02 €

## **7.-GALDE ERREGUAK.**

**BAT.-**Ane Garmendiak , gizarte langileak proposatuta , Peñascal fundazioarekin hitzarmena egitea proposatu du .Fundazio honek , hainbat materiala eta tresna erabiltzeko aukera eskaintzen duela alde batetik , eta kostua merkea dela ikusita , hitzarmena egitea proposatu da. Mahaikideek , proposamena ontzat eman dute .

**BI.-** Azken orduan , L.Z.I. andreak Urki etxean egin behar den moldaketa baten inguruko kontsulta luzatu zuela eta udaleko arkitektoak eta idazkariak egindako azterketaren inguruan mahaikideek jakinarazi eta horrela ikusten bada , gaia tratatu eta erabakia hartzeko .



Mahaikideek gaia tratatu , eztabaidatu eta dagokion erabaki hartzeko alde agertu dira .

L.Z.I andrearen eskaeraren xedea :Urki etxearen fatxada nagusian eta Garate baserri aldeko fatxadaren arteko ertzean atzeragune edo retrankeo bat dago. Atzerangune hau kendu eta itxi egin nahi du .

Honen inguruan , honako informazio hau ematen da :

1.-Eskatzaileak eraikitzeko baimena 1996 urtean eskuratu zuen , orduan zeuden Arau subsidiarioen arabera . eta honako ezaugarriak bete behar zituen:

- .-Alineazioa : planoetan esandakoa
- .-Okupazioa. 150 m<sup>2</sup>
- .-Eraikigarritasuna. 360m<sup>2</sup>
- .-Behe oina, lehen oina eta teilatupea

2.-Obra amaiera aurkeztu zenean :

- .-Alineazioa : planoetan esandakoa betetzen du .
- .-Okupazioa. 123 m<sup>2</sup>.Betetzen du
- .-Eraikigarritasuna. 217,99m<sup>2</sup>.Betetzen du
- .-Behe oina, lehen oina eta teilatupea .Betetzen du .

3.-2003 urtean onartutako arau subsidiarioetan , eta eraikinak zeuden bezala kontsolidatuak geratzen dira , eta eskatzaile honen kasuan obra amaieran geratzen diren alineazioa , okupazioa , eraikigarritasuna eta oinen banaketa dira kontsolidatuak geratzen direnak. Eskatzaileak burutu nahi duen lanarekin , alineazioa , okupazioa eta , oin kopuruak betetzen ditu , baina eraikigarritasuna ez du betetzen. Orain , egin nahi diren lanekin bi edo hiru metro karratu gehitzen dizkio .

Guztiaren berri jakin ondoren ,

**Mahaikideek ERABAKI DUTE:**

1.-Oinarrizko baldintzak , alineazioa , okupazioa eta oinak errespetatzen direla eta , eta gehitzen den okupazioa garrantzizkoa ez denez , eskatutako lanak burutzeko baimena onartzea .

2.-Egin behar diren lanen aurrekontua udalean aurkeztea , dagokion eraikuntza eta obra zerga likidatzeko .



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

3.-Erabakiaren berri eskatzaileari jakinaraztea.

Eta besterik ezean , bilera amaitutzat eman du alkateak , arratsaldeko  
20:10etan .

Alkateak

Idazkariak